

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzea

Udalaren Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzea erabaki zuen, 16. artikuluko 4. atalean ezarritako hobaria Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemaileak egiten duen idazkerara egokitzeko (dekretu horren bidez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren testu bategina onartzen da), 15.8 artikuluan hobari bera aplikatzeko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 65.2. artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da espedientea, hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Durana, 2024ko urriaren 29a

Alkatea

M^a BLANCA ANTEPARA URIBE